

2023.ko abenduaren 16 eta 17a

Lagun agurgarriok:

Gabonen atarian gaude. Une honetan, jendearekin elkartzen gara berriro, eta ospakizun bereziak egiten ditugu, mahaiaren inguruan, oro har, Jesus Umearen etorrera ospatzeko.

“Hara, atean nozu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten badau eta atea edegi, harenean sartuko naz eta alkarregaz afalduko dogu” (Ap 3, 20)

Jesusi utzi diezaiegun geure etxean sartzen eta elkarte kristauarentzat hain esanguratsuak diren jaietan geure alboan egoten. Egunotan gurekin elkartzen direnekiko harremanak irekiak izan daitezela, eta Francisco aita santuaren deia gogoratu dezagun, “irteeran dagoen Eliza” izateko. Horretarako, “*elkarte hartzaileak eta barneratzaileak*” izan gaitezen, Ebanjelizaziorako Elizbarrutiko Planaren bidez aurton eskatu zaigun bezala. Eredugarri eta Jainkoaren lekuko izan gaitezen geure ingurunean. Lekuan Lekuko.

Caritasek aurtengo Gabonetarako duen “*Hator! Estás en casa*” kanpainan adierazten denez, beste pertsona batzuei eman diezaiegun abegia, euren etxean bezala daudela sentitzea lortu dezagun eta askeak izaten lagundu diezaiegun. Geure etxeak familia bihurtu ditzagun gehien behar gaituztenentzat. Esaten, egiten, izaten... utzi diezaiegun beste pertsoneri, eta horrek gudan izan dezala eragina eta geure pentsaera aldatzera behartu gaitzala.

Gabonetako kanpaina hau ospatzean, geure fedearen testigantza eman dezagun, eta behartsuenak, txikiak eta egoera txarragoan daudenak jarri ditzagun erdigunean. Ahalegina egin dezagun, pertsona guztiek etxean bezala daudela sentitu dezaten. Geure bihotzak ireki ditzagun, Geure Jesus Jaunaren deia entzuteko eta elkarte hartzailea eta barneratzailea izateko eta egiteko.

“Alai egon beti. Etengabe egin otoitz. Eskerrak eman beti, horixe bera delako Jainkoak, Kristo Jesusen baitan, eskatzen dizuena.” (Tes 5, 16-18).

Elkartzeko eta ospatzeko uneak poztasunez eta otoitz eginez balia ditzagun. Etxean bezala sentitzea zeinen garrantzitsua den gogoratu dezagun, baina baita Guztion Etxea zaintzea premiazkoa dela ere. Etxe berean bizi gara, planeta berean, abegia ere ematen digun guztion lurrean, alegia. Hori dela eta, Laudato Sí nahiz Laudate Deumeko mezuak hartu ditzagun kontuan, erantzukizunez jokatu dezagun, arduraz kontsumitu dezagun eta gutxien daukatenak gogoratu ditzagun.

Honako honexetarako gonbita egiten dizugu:

- **Zeure bizimodua aldatu** eta pertsonetikiko hurbiltasuna zein prestasuna landu.
- **Zeure denbora aldatu** eta benetako maitasunarentzat zabalik dagoen bihotzaz bizi.
- **Zeure begirada aldatu** eta errealitatera hurbildu, samariar onak egiten duen bezala.
- **Gelditu zaitetz eta ahal duzun guztia egin**, gizaki guztiontzako duintasuna nahiz justizia lortzeko.

Geure baitan biltzeko eta Gabonetarako prestatzeko uneek inguruko abegia garatzen lagundu diezagutela eta aurtengo Gabonetan pertsona guztiek etxean bezala sentitzeko aukera izan dezatela.

Gabon zoriontsuak!



Elena Unzueta Torre . Directora



16 y 17 de diciembre de 2023

Estimadas amigas, estimados amigos:

Estamos a las puertas de la Navidad, de un momento en el que se producen reencuentros y celebraciones especiales, generalmente en torno a la mesa para conmemorar la llegada del Niño Jesús.

“Si alguien escucha mi voz y abre la puerta, entraré en su casa y cenaré con él y él conmigo” (Ap. 3,20)

Dejemos que Jesús entre en nuestras casas y nos acompañe en estas fiestas tan señaladas para la comunidad cristiana. Dejemos que las relaciones con las personas con quienes nos encontremos en estas fechas sean de apertura, recordando la llamada del Papa Francisco a ser una “iglesia en salida”, siendo “*comunidades acogedoras e inclusivas*” tal y como se nos anima este año desde el Plan Diocesano de Evangelización. Seamos ejemplo y testigos de Dios en nuestro entorno. Lekuan Lekuko.

La campaña de Caritas para estas Navidades: “**Hator! Estás en casa**” nos anima a acoger a otras personas, a perseguir que se sientan en su casa, que sean libres. Hagamos de nuestras casas hogares para quienes más nos necesitan. Permitamos que las otras personas digan, hagan, sean...y que ello nos afecte y nos obligue a cambiar nuestros modos de pensar.

Celebrems esta campaña de Navidad dando testimonio de nuestra fe y poniendo en el centro a quienes son más pobres, a las personas más pequeñas y desprotegidas. Tratemos de hacer sentir como en casa a todas las personas. Abramos nuestros corazones para escuchar la llamada de Nuestro Señor Jesús y ser y hacer comunidad acogedora e inclusiva.

“Estad siempre alegres. Orad constantemente. En todo dad gracias, pues esto es lo que Dios, en Cristo Jesús, quiere de vosotros” (Tes 5, 16-18).

Aprovechemos los momentos de encuentro y celebración con alegría y orando, recordando la importancia de sentirse en casa, pero también la necesidad del cuidado de la Casa Común. Vivimos en la misma casa, el mismo planeta, la tierra común que también nos acoge. Tengamos por ello presentes los mensajes de la Laudato Sí y la Laudate Deum y seamos responsables en nuestros actos con un consumo responsable, recordando a quienes menos tienen.

Te invitamos a:

- **Cambiar tu estilo de vida**, cultivando la cercanía y disponibilidad hacia las personas.
- **Cambiar tu tiempo**, viviendo con el corazón abierto al amor verdadero.
- **Cambiar tu mirada**, acercándola a la realidad, como hace el buen samaritano.
- **No pasar de largo**, a hacer todo lo posible para que la dignidad y la justicia sean posibles para todas las personas.

Que los momentos de recogimiento y preparación a la Navidad nos ayuden a desarrollar la acogida de quienes nos rodean y que todas las personas puedan sentirse en casa estas Navidades.

Gabon Zoriontsuak!



Elena Unzueta Torre . Directora

